



Usabal kirolgune berria zabalik da atzodanik

IREKITA ▶ 4.000 lagun inguru izan dira kirolgune berria barrutik ezagutzen, antolatzaileen arabera

I. FASEA ▶ Igerilekuak, jarduera gelak eta pista daude erabilgarri; hilaren 7a arte, sarrera doan ▶ 2,3



Haurrek ederki pasatu zuten kanpoko igerileku berrian. Gune hori erruz bete zen atzo. Ikusmin handia piztu du Usabal kirolguneak. I. ETXEBESTE

LEITZA ▶

Punta-puntako judoken erakustaldia

Gaur arratsaldean antolatu dute, zaletasuna pizteko ▶ 7

ALEGIA ▶



J. GOIKOETXEA

Oriako ur zikinak jasotzeko lanak

Adunaraino iritsiko den hodia ari dira jartzen egunotan ▶ 5

TOLOSA ▶

Ipuinartean I egitasmoan egin dute bat hainbat herrialdetako 36 artistek, kulturantzaren alde

Irazki elkarte kulturantzak eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatu dute; atzo aurkeztu zuten, Donostian ▶ 4



Herri erakundeen kudeaketa lantzen duen euskarazko graduondokoa

Tel. 943015840 / 943015794 / 943015773
hereku@se.ehu.es

www.sc.ehu.es/seweb/webcentro/euskara

AZPIEGITURAK ▶

Ikusmina asetuz

Ate irekien jardunaldiak ari dira egiten egunotan Usabal kirolgune berria ezagutzera emateko; hilaren 7ra arte izango da aukera, doan, bertako instalakuntzez gozatzeko; bazkide egiteko epea zabalik da



Kanpoko igerilekuak. Eguraldi onak bultzatuta, jende andana bildu zen atzo Usabalgo instalakuntza berrietara kanpoko igerilekuak eta beste estreinatzerara. IRATXE ETXEBESTE

N. LATABURU - I. ETXEBESTE

Herenegun izan zen lehen aukera, eta herritarrak erruz bildu ziren Usabal kirolgune berria barrutik ezagutzera. Izan ere, 4.000 lagun inguruk egin zuten bat bertan, antolatzaileen hitzetan, «aurreko hilabeteetako ezinegonari aurre egiteko». Joan den bi urte eta erdiotan, hasi zituztenetik, aritu dira Usabal ingurunean kiroldegi berria eraikitzeko lanak egiten, eta ordutik hona makina bat izan dira nolako kirolgunea egin behar ote zuten galdezka aritu direnak. Bigarren faseko obrak 2006ko martxorako amaituta izango direla iragarri duten arren, kirolguneako insta-

lakuntza gehienak zabaldua dira honezkeroko, eta udal arduradunek horiez gozatzeko aukera eman dute, dohainik, hilaren 7ra arte.

Erabilgarri dauden guneen artean dira kanpoko bi igerilekuak, barruko biak, bi jarduera gelak eta kirol anitzetarako pista nagusia, eta urrirako zabalduko dute erlaxazio gunea —bi sauna, terma, lurrin bainua eta hidromasaia daude bertan—. Kirol programak ere urrian hasiko dira, eta «eskaintza, eskaeraren arabera» izango den arren, dagoeneko zehaztuta dituzte izango diren ikastaroetako batzuk. Tartean dira aerobika, spinning-a, aretoko dantzak, fitness-a eta pilatesa.

Usabal kirolguneako bazkide egiteko epea zabalik da dagoeneko bertako harreran. Telefono zenbaki honetara deituta ere eman daiteke izena: 943 69 43 22. Izen-emate orriak eta argazkia eramatea ezinbestekoa da horretarako. Bazkide finkoek honako kuota ordaindu beharko dituzte hileroko: 4 eta 13 urte bitarteko haurrek 9 euro; gurasoak abonatuak dituzten gazteek 4,31, eta gurasoetako bat dutenek 8,10; 14 eta 21 urte artekoek 13,50 eta 22 eta 64 urteko artekoek 18. Elbarriek 4,50 euro ordaindu beharko dute, eta 65 urtetik gorakoek 10,80 euro. Gurasoetako bat bazkide duten haurrek, berriak, 5,39 euroko kuota ordain-

du beharko dute hileroko, eta bi gurasoak bazkide dituztenek doan izango dute txartela.

Finkoak bakarrik ez

Bazkide finko izan beharrik ez dago, ordea, Usabal kirolguneako instalazioez gozatzeko. Eguneko sarrerak erosi ahal izango dira —haurrek 3,20 eurotan; gazteek 4,80tan; helduek 6,40tan; 65 urtetik gorakoek 3,20tan eta elbarriek 1,60tan—. Gainera, behin-behineko bazkide txartelak ere egin ahal dira: hamabost egunetakoak —haurrek 10,81 euro; gazteek 15,94; helduek 19,80; 65 urtetik gorakoek 10,81 eta elbarriek 4,94 euro

ordainduta— eta hilabeteakoak —haurrek 19,15 euro; gazteek 27,29; helduek 36,38; 65 urtetik gorakoek 19,15 eta elbarriek 9,10 euro ordainduta—, hain zuzen ere.

Bazkideek «instalazio areto eta zerbitzu guztiak bereizi gabe» erabiltzeko eskubidea izango dute asteleheneetik ostiralera 08:00etatik 22:00etara, larunbatetan 08:00etatik 20:00etara eta igande eta jaiegunetan 09:00etatik 14:00etara. Ate irekien jardunaldien baitan jendearen erantzuna «oso ona» izan dela iritzita, Usabal kirolguneak 5.500 bazkide izango dituela aurreikusiten dute sustatzaileek, kirolzer enpresako arduradunek.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



Hidromasaia gunea. Barruko igerilekuaren alboan, hidromasaia gune handia jarri dute Usabal kirolgune berrian. 185 m2 ditu erlaxazio guneak orotara, eta, besteak beste, bi sauna gela, baparezko bainua, termak eta hidromasaia daude. Urritik aurrera erabili ahal izango da gune hori. I. ETXEBESTE



Barrukoa. Hamar kale ditu igerileku estali handiak. Zehazki, 25X20,5 neurtzen du. I. ETXEBESTE



Jarduera gelak. Era guztietako makinak daude bi solairutan banatuta dauden jarduera geletan. 300 m2 neurtzen ditu bakoitzak. N. LATABURU



Kantxa. Kirol anitzetarako bi pistetan handiena da irudian ikusten dena. 1.250 m2 ditu eta 860 eserleku izatera irits daiteke. N. LATABURU



Futbol zelaia. Belar artifizialeko lehen zelaia da herrian. Haren alboan dago txikiagoa dena. I. E.

ESKUBALOIA ▶

Eskubaloi partida izango da gaur kiroldegi berrian

Miguel Angel Lorz, Txipi zena omenez, eskubaloi partidua antolatu dute herriko kirolzaleek gaur arratsalderako. Ohorezko Mailan ari den Bidasoa eta Ohorezko Maila B-n jarduten duen Villa de Aranda taldeen arteko norgehiagoka izango da, zehazki. «Kirol hori berpizteko» helburuarekin antolatu dute ekimena, eta Usabal kirolgune berrian izango da, 19:00etatik aurrera.

SASKIBALOIA ▶

1992an eta 93an jaiotakoei deia taldean sartzeko

Tolosako saskibaloi taldeak deialdia egin die 1992an eta 1993an jaiotako gaztetxoei taldean aritzeko izena eman dezaten. Kirol horretan sakondu aurretik proba egin nahi dutenek datorren asteazkenean, hilak 7, dute hitzordua, 17:00etan, Usabal kirolgune berrian. Izena ere bertan eman behar dute interesa dutenek.

HEZKUNTZA ▶

Matrikula epea zabalik da jada THH-EPA

THH-EPA, Tolosako Helduen Hezkuntza zabalik da jada 2005-2006 ikasturterako eskaintza 18 urtetik gorakoentzat. DBH graduatua, 25 urtetik gorakoentzako unibertsitaterako sarrera, oinarriko ezagueren sakontza, irakurketa eta idazketa hastapenak, egur taila, etorkinentzako gaztelera ikastaroak, arteari buruzko ikastaroa, test psikoteknikoak, eskulanak... askotariko eskaintza egin du aurten ere ikastetxe publiko horrek. Ikastaroak dohakoak dira, eta izena emateko Igaralde kaleko 23-25 zenbakietara joan edo 943 67 26 60 telefonora deitu behar da.

Bigarren fasea 2006ko martxorako bukatuko dute

Usabal kiroldegia zabalik da jada, baina gune batzuetako lanak amaitzeko dituzte oraindik. Proiektuaren bigarren fasea datorren urterako, 2006ko martxorako bukatuko dute. Bi squash kantxa, padel kantxa bat, arku tiroko gunea, frontoi txiki bat, entrenamendurako kantxa, 18 metroko rokodromoa, tatamia eta boulderra izango ditu. Hastapen batean bigarren fase horretan sartu zuten kirolgunearen sustatzailerak hidromasaia gunea, baina obrak aurreratu egin dituzte-

nez, datorren hilean bertan erabili ahal izango da. Eremu horiek guztiak bai, baina oraingoz hutsik utziko duten beste gune bat ere ari dira prestatzen, «etorkizunean egokitu daitezkeen beharretara egokitzeko», azaldu du Igor Aldanondo, Usabal kirolguneko obren buruak. Herritarrek ez ezik, eskola umeek ere erabili ahal izango dute entrenamendurako deitzen dioten kantxa, «eskolarteko partiduak jokatzeko aukera izango baita». ◀



2006ko martxorako bukatuko dute kirolgunearen bigarren fasea. I. E.

iragarki laburrak ▶

Correos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonon.
Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi

lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur eskola publikoak. Haur

zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenerik ostiralera. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.
Laborategiak. Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak,

Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.
Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udalenterako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Kulturaniztasuna zabalduz

Ipuinartean I egitasmoa aurkeztu dute Irazkik eta Tolosa 750. Urteurrena-k



Egitasmoaren sustatzaileak eta bertan parte hartu duten hainbat artista, atzo, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunearen kanpoaldean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Irazki Tolosaldeko kulturaniztasunaren aldeko elkarteak, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren laguntzaz, Ipuinartean I egitasmoa jarriko du aurki martxan. Artea, literatura eta kulturaniztasuna bateratzea du helburu egitasmoak. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egin zuten atzo proiektuaren aurkezpena eta bertan izan ziren Rita Calderon Irazki elkarteko lehendakaria, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Santi Eraso Artelekuko zuzendaria, eta Alberto Martinez Kutxako ordezkaria. Egitasmoan parte hartu duten hainbat artista ere bertan izan ziren.

Bost kontinenteetako ipuin, mitologia eta elezaharren bilduma osatu ondoren, kultura ezberdinetako 36 artistek lanak egin dituzte testu horiek kontuan hartuta. Ezinbesteko baldintza zen aukeratutako testua ez izatea norberaren kultura eta kontinente berekoa. Margoa, bideoa, argazkia, eskultura, materia organikoekin egindako eskultura, birziklatutako materialekin egindakoa, lore-muntaia eta instalazioak izan dira erabilitako arte moduak.

Artelan horiekien erakusketa ibiltari bat osatu dute eta Tolosan, Aranburu Jauregian, erakutsiko dute lehenik, irailaren 20tik azaroaren 5era. Erakus-

ARTISTAK ▶

Ipuinartean I egitasmoan parte hartu duten herrialde ezberdinetako hogeita hamasei artisten zerrenda.

Alekos. Bogota (Kolonia).
Javier Alkain. Donostia (Euskal Herria).
Mariano Arsuaga. Irun (Euskal Herria).
Alfredo Bikondoa. Donostia (Euskal Herria).
Fabrizio Cajas. Quito (Ekuador).
Sepi Caminos. Tolosa (Euskal Herria).
Susana Garcia. Tolosa (Euskal Herria).
Maria Cueto. Aviles (Espainia).
Martina Dasnoy. Brusela (Belgika).
Antonio Di Bellonio. Napoli (Italia).
Gustavo Díaz Sosa. Sagua La

ketaz gain liburu bat argitaratuko dute, artelanak eta hauek egiteko oinarri hartu diren testuak biltzen dituen. Bestalde, bideo sorkuntza bat ere kale-ratuko dute.

Jardunaldiak

Ipuinartean I egitasmoak —bi urtean behin egitea pentsatzen dute antolatzaileek— bi irizpide azpimarratzen ditu kultu-

Grande (Kuba).
Felix Edu Alo. Amvorn-Evinayong (Ekuatore Ginea).
Iñaki Epelde. Tolosa (Euskal Herria).
Juan Luis Goenaga. Donostia (Euskal Herria).
Juan Gorriti. Oderitz (Euskal Herria).
Tony Grady. Newcastle Upon Tyne (Erresuma Batua).
Hiromi Inomata. Chiba (Japonia).
Sukru Karakus. Malatya (Turkia).
Darcy Kiefel. San Frantzisko (AEB).
Alberto Letamendi. Ordizia (Euskal Herria).
Jose Luis Longaron. Tolosa (Euskal Herria).
Papin Lucadamo. Buenos Aires (Argentina).
Hector Luna. Quito (Ekuador).
Ricardo Madana Mateo.

rartekotasunaren inguruan: desberdintasuna elementu aberasgarri gisa aitortzea, eta bestearen ezagutza ahalbidetzeko bitartekoak jartzea. Horrela, aipatutako ekitaldiez gain, iraila eta urrian zehar kulturartekotasunari buruzko jardunaldiak egingo dira Tolosan. Hilaren 23an hasita eta ostiralerora, mahai inguruak, hitzal-diak, filmak eta horri buruzko etzabaidak eta abar izango

Annobon (Ekuatore Ginea).
Willie Marquez. Jerez de la Frontera (Espainia).
Julio Matilla. Camaguey (Kuba).
Hugh McCarthy. Valdelcalzada (Espainia).
Txitxi Orbegozo. Tolosa (Euskal Herria).
Tony D. Pajaro. Manila (Filipinak).
Julio Pardo. Iruñea (Euskal Herria).
Iñigo Royo. Donostia (Euskal Herria).
Barbara Stammel. Soecking (Alemania).
Gorcin Stanojlovich. Sarajevo (Bosnia-Herzegovina).
Tanya Tagaq. Cambrydge (Kanada).
Tytti Thusberg. Mikkeli (Finlandia).
Jose Luis Zumeta. Usurbil (Euskal Herria).

dira. Ekuatore Ginea da Ipuinartean I egitasmoaren herrialde gonbidatua, eta urriaren 29an bere eguna egingo da.

Bestalde, Tolosaldeko ikastetxe batzuetan ere kulturartekotasunari buruzko jardunaldiak egingo dira, eta horretarako egitasmoaren batzordeak programa bat prestatu du, musika, artea, jolasa eta literatura ardatz hartuta.

IBARRA ▶

Euskara ikasteko matrikula epea zabalik

Euskara ikasi nahi duten ibartarrek euskaltegian izena emateko epea zabalik dute dagoeneko. Argibideetarako euskaltegira edo udal-letxera jo dezakete. Aitzol euskaltegian izena emateko epea irailaren 20a arte dago zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. AEK euskaltegian, berri, izena emateko epea irailaren 12tik 23ra dago zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30etara.

MUSIKA ▶

Loatzoko klaseak hilaren 7an hasiko dira

Loatzo musika eskolak ikasurtean berri eman du ohar baten bidez. Eskolak azaltzen duenez, herri guztietan klaseak hilaren 7an hasiko dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egotiza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ALEGIA ▶ HIRIGINTZA

Oria ibaiko ur zikinak jasoko dituen hodia jartzen ari dira

Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren artean egingo dituzte lanak eta ibaiaren egoera ona berreskuratzea dute helburu



Oria ibaiko ur zikinak bilduko dituen hodia jartzeko lanetan makinak eta langileak, Alegian. JULEN GOIKOETXEA

JULEN GOIKOETXEA

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila Oria ibaian lanak egiten ari da. Legorretatik hasi eta Adunaraino, eskualdean ibaira isurtzen diren ur zikinak bilduko dituen hodi bat jarriko dute, eta Adunan eraikiko den araztegitiraino helduko da. Duela hilabete batzuk hasi ziren lanen lehen fasearekin.

Legorretatik hasi eta Benta Aundirainoko ibai zatian ari dira lanean, eta ibaian egiten diren obra guztiak sortzen duten bezala, Oriakoak ere sortu du herritarren ikusmina, ez baitira gutxi izan makinei eta kamioiei begira zubian nahiz edonon egon direnak. Lanen lehen fasearen amaiera datorren urteko udazkenerako dago aurreikusia.

Obren bigarren faseak, aldiz, Tolosan Oria ibaiak egiten duen bide osoan hodia ezartzea du helburu. Lan hauek hasteko oraindik denbora pasatuko den arren, hirugarren fasea ere aurreikusita dute. Zati honetan Tolosa eta Irura arteko ibai zatian ur hondakinak jasoko dituen hodia ezarriko dute.

Lan hauen bidez, Oria ibaira isurtzen diren ur hondakinak kopurua murriztu nahi du Eus-

ORIAKO LANAK ▶

Lanak Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituzte.

EUSKO JAURLARITZA

Legorreta-Benta Aundi.

Hodia ezartzea.

Benta Aundi-Tolosa osoa.

Hodia ezartzea.

Tolosa-Irura.

Hodia ezartzea.

FORU ALDUNDIA

Irura-Aduna.

Hodia ezartzea.

Aduna.

Araztegia eraikitzea.

ko Jaurlaritzak. Adunan eraikiko den araztegian bilduko dira era honetan eskualdeko ur hondakin guztiak eta aipatu urak eramango dituen hodiaren bidez Legorretako eta Adunako araztegiak elkarren arteko lotura izango dute.

Azken fasea Aldundiak

Behin Iruraraino iritsita, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratuko dira lanak. Izan ere, Aldundiaren ardura izango da Iruratik Adunarainoko ibai zatian hodia ezartzea eta Adunako araztegia eraikitzeko ardu-

ra. Behin lan hauek amaituta, hasiera batean proiektua zen amaiturik ikusi ahal izango da.

Lan hauekin guztiekin, Eusko Jaurlaritzak ingurumena babesteko eta ahal den neurrian hobetzeko hartutako konpromisoan beste pauso bat eman nahi du. Hori kontuan hartuz, historikoki oso zikin-tzat jo den Oria ibaiaren azken urteotako berreskuratze lanen beste pauso bat dira lan hauek.

Obra egiten ari direla eta, ibaiaren albo batean egin duten bidexka horrek zeresana eman dio bati baino gehiagori. Baina lanek irauten duten bitartean, kamioientzat eta maktinentzat egin duten pasabide bat da, eta guztia amaitzen denean dena lehen bezala edo hobeto geratuko dela jakinarazi dute obrako arduradunek.

Beraz, gure eskualdeko ibai bazterren lasaitasuna asaldatuta ikusten bada, ez du inork kezkatu beharrik. Oria ibaiko ur hondakinak isurketak bilduko dituen hodiaren, eta bertatik joango diren ur zikinak jasoko dituen Adunako araztegiaren eraikuntzan ariko diren langile eta makinak jarduna izango da, epe laburreko oztipoa, etorkizuneko hobekuntza bihurtu nahi dutenena hain zuzen ere.

ORENDAIN ▶

Eniriora irteera antolatu du Udalak gaurko

Orendaingo Udalak Enirio mendira irteera antolatu du herritarrentzat. Aurten hirugarrenez joango dira, izan ere, aurreko aldiek arrakasta izan zuten. Bertaraten den orok trikitixa izango du entzungai eta txiste kontalari bat jendearen irribarreak bereganatzen saiatuko da. Goizeko bederatzietan abiatuko dira, eta herritar guztientzat irekia da txangoa.

ALEGIA ▶

Intxurrekoak denboraldiari ekiteko prest

Intxurre KKE-ko futbol taldeak datozen asteetan hasiko dira denboraldi berriko partidekin. Maila ezberdinetako taldeek ahalik eta posturik onena lortu nahiko dute saikapean, eta horretarako duten guztia emango dute.

IBARRA ▶

Lastur-era joateko izen-ematea

II. Garagardo Azokan egingako lanaga eskertzeko, egun pasa antolatu dute. Hilaren 24ean izango da: 09:30ean aterako dira autobusez Ibarrik, Zarautzetatik jo den Oria ibaiaren azken urteotako berreskuratze lanen beste pauso bat dira lan hauek.

AMEZKETA ▶

Tolosaldeko eta Leitzaldeko pilotariak finalerdietan

Olazabal eta Elurbe hurrengo fasean izango dira atzoko partidak irabazita

J. GOIKOETXEA

Atzokoa nahiko egun oparoa izan zen inguruko pilotariarentzat. XVI. Joxean Tolosa pilota txapelketaren barruan, final-laurdenetako bigarren jardunaldia jokatu zen Amezketan. Tolosaldeko bi ordezkari eta Leitzaldeko beste bat izan ziren atzo lehian finalurrekoetara saikatzeko gogoz.

Betiko moduan, kadeteen partida izan zen lehendabizirik jokatu zena. Bertan, Telletxea albizturra Peñasen aurka lehiatu zen. Norgehiagoka gogorra jokatu zuten bi pilotariak, baina azkenean Telletxeak eginiko lan onak ez zuten saririk jaso, eta 18 eta 9koaz Peñasek irabazi zuen partida.

Ondoren, gazteak izan ziren kantxaratu zirenak. Maila honetan, Elurbe lizartzarrak Uz-kudun menperatu zuen 18 eta 10ekoaz. Partidak hasiera gogorra izan zuten, baina bigarren zatian Uz-kudunek behera egin zuten.

Azken partida, nagusia, izan zen ikusgarria. Olazabal aresoarrak Baez II.a izan zuten aurkari, eta bi pilotariak zuten guztia eman zuten. Biek izan zuten lehian irabazteko aukera, baina azkenean Olazabal 18 eta 16koaz nagusitu zen.

Finalurrekoetako partidak erabakitzeke, gaur eta bihar jokatuko dituzte falta diren lehiak. Beti bezala, 22:00etan hasiko dira eta neurrak hauek ere kadete, gazte eta nagusien mailetakoko pilotariak izango dituzte ikusgai Larrunari pilotalekura gerturatzen direnek.



**JOSE MARI
OSTATU
JATETXEA**

FESTAK ONDO PASA!

Tel.: 943 68 20 91 • Faxa: 943 69 74 37
20490 LIZARTZA

BELAUNTZA ▶

Eskalada
ikastaroa luzatu
egingo dute

Uztailen antolatutako zuten eskalada ikastaroa luzatu egingo dute, eta ondorioz irailean eta urrian zehar larunbatean izango da 10:00etatik 12:00etara Belauntzako pilotalekuan. Izena emanda duten pertsonen eskaladan sartzeko aukera izango dute, eta ikasle berriek ere aukera izango dute, izena emateko epea zabalik baitago oraindik. 12 urtetik beherakoek 10 euro ordainduko dituzte, eta gainerakoek 20.

ELDUAIN ▶

Autobusa
antolatu dute
jaietara joateko

Gaur 18:00etan emango die hasiera Elduainen Andra Mari jaietara suziri eta kanpaiekin. Ondoren Poxpolo eta Mokolo pailazoak eta txokolata izango dira eta 24:00etan Abiba diskojaia antolatu dute Donosti DJrekin. Pasa den urtean bezala, Tolosatik autobusa antolatu dute Elduainera joateko. 23:30ean aterako da San Frantziskotik eta goizaldeko 04:30ak inguruan bueltatuko da Tolosara.

BELAUNTZA ▶

Labastidako
Bodegara irteera
antolatu dute

Datorren irailaren 10ean Arabako Labastida herriko Remelluri Bodegetara irteera antolatu dute. 20 euroren truke, bodega hau ezagutzeko aukera izango da, bertako ardoa dastatzu eta baita bazkalduz ere. Izen-ematea irailaren 8a baino lehen egin behar da Belauntzako Kultur Etxean, eta ordainketa ere orduan egingo da.

GAZTELU ▶ KULTURA

Berriro ere jaietan

Jende ugari bildu da aste honetan 'Kutsidazu bidea, Ixabel' pelikulan herriko jaiak filmatzeko; datorren astean amaituko dituzte lanak



Irudikatutako tiropitxo postuan aritu ziren filmatzen. I.TERRADILLOS



Herritar ugari biltzen da kameraren atzean filmaketa ikusteko. I.T.



Herriko jaietan bezala erroskila saltzaileak ere ez ziren falta. I.T.

IÑIGO TERRADILLOS

Xabier Saldiasekin dantzaldia, erroskila saltzaileak, ohiko tiropitxo postua, txosna, pilota partidak eta batean eta bestean jendeandana. Ezaugarri hauekin guztiekin jaietan murgilduta dagoela herri hori pentsa genezake, baina ez da horrela, Gaztelun abuztuaren erdialdean izan baitzituzten jaiak. Zinemaren erruz, ordea, aurtun bigarren ez bizi izan dituztela esan genezake.

Izan ere, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmatzen dihardute bai Asteasun bai eta Gaztelun ere eta aste honetan, astelehenean eta ostegunean hain zuzen, herriko jaiak irudikatu dituzte azken horretan. Hori dela eta, ohiko aktoreez gain, figurante moduan aritzeko boluntario ugari beharra zuten, eskaria egin zuten bi egun horietarako. Eta eskariari men eginez aktorez beteta ikusi du Gazteluk bere herriko plaza. 150 lagun inguru gerturatu dira zinema mundua ezagutze-

ko asmoz, aktore izateko aspaldiko ametsa betetzera edo, besterik gabe, ondo pasatzera.

Lan taldeak filmatzen diharduen bitartean asko eta asko dira kameraren atzean soinurik egin gabe lanean nola egiten duten ikustera hurbiltzen diren gazteluarrak. Horientzat berezia da oso aste hauetan begien aurrean duten ikuskizuna, biztanle gutxi dituen herri lasaia baita Gaztelu. Patxi Navas herriko alkateak adierazi duenez, orohar herritarrak oso gustura daude filmarekin; «herritar ugari animatu da bertan parte hartzera, eta horregatik eta gure herria zinemaren ikusteko aukera izango delako irrikaz gaude pelikula ikusteko», azaldu du. Gainera herria ezagutzeko ere oso ondo etorriko dela filma erantsi du.

Filmaketa amaitzear

Gaztelun jaiak filmatu ondoren, atzo Tolosako Euskal Herria plazan aritu ziren, eta espero bezala, datorren astean Asteasuko baserrian eta Gazteluko inguruetan aritu ondoren amaituko dute Ixabelen eta Juan Martinen arteko maitasun istorioaren filmaketa.

Arduradunek azaldu dutenaren arabera, martxoan izango da euskal zinemetan azken emaitza ikusteko aukera.



**ELDUAINGO
UDALAK**

**HERRIKO JAIETARA
CONBIDATZEN
ZAITUZTE
EKITALDI UGARI,
MUSIKA MUNDIALA
AFARI ZEIN BAZKARI
GOXO GOXOAK**

**KONTZEJU
TABERNAK**



Lizardi
Inmobiliaria

TOLOSA (Laskorain) 90m² pisua berritua eta altzariekin.
TOLOSA (Nagusia) 140 m² duplexa berritua eta altzariekin.
TOLOSA (Santa Klara) 70 m² ko pisua berritzeko.
TOLOSA (Geltoki alde) Eraikuntza berria. Informazio pertsonala.
ORDIZIA. Etxe atxikia, txokoa, garajea 2 kotxerentzat, 4 logela, terraza eta jardina.
ORDIZIA. Eraikuntza berria. Pisu eta apartamentuak. 25.000.000 pezetatik aurrera.
ESTELLA. Etxea lorategiarekin urbanizazio pribatuan. Igerilekua, frontoia...
 Samaniego, 1 • TOLOSA
 Tel.: 943651122 • Tel.: 679842785

trapi bidea
OLIVIA

Tel.: 943 68 20 34 / 943 68 21 25
 Faxa: 943 68 21 05
 Iruñako errep. 31.km
 P.K. 81-TOLOSA • LIZARTZA

LEITZA ▶ KIROLA

Judo erakustaldia egingen dute gaur igerilekuko larratxean

Oso maila oneko judokak heldu dira bertara; negu aldera, judo ikastaroak eman nahiko lituzteke kiroldegian bertan



Judo ikastaroak egin nahi dituzte aurtengo neguan, Leitzako kiroldegian bertan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Gaur arratsalde, 18:00etatik aurrera, judo erakustaldia ikusteko aukera izanen dute Leitzako igerilekura joaten direnek; ikuskizuna doan izanen da.

Eta ez da nolana hiko judokak ikusteko aukera izanen, gainera. Sei kirolari dira: hiru emakumezkoak eta beste hiru gizasemeak. «guztiak, bakoitza bere mailan, txapeldunak dira, Europakoak, Espainiakoak, edota Olinpikoak», argitu nahi izan zuten Leitzako kiroldegiko kudeatzaileek, ikuskizun honetako antolatzaileek, alegia. Maila goreneko judoka hauekin batera, «beste bi ume ere etorriko dira», aipatu zuten, «kirol hau adin guztiakoz zale-tuek praktika dezaketela erakusteko asmoz», erantsiz.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta opporen ordezkapenak egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 691 933.

SALGAI

Furgoneta. Citroen Berlingoa salgai. Diesela. Egoera onean. 650 32 45 06.

JUDOKAK ▶

Jolanda Soler. Hiru aldiz izan da Europako Txapeldun; brontzeko domina Olinpikoa ere bada.

Jose Toro. Espainiako txapelduna; 1996. urtean Atlantako (AEB) Olinpiar Jokoetan dominak irabazitakoa.

Nieva Larraia. Espainiako txapeldunordea da judoka hau.

Iban Oviedo. Espainiako txapelduna.

Angeles Diaz. Espainiako txapelduna da; Paris Hirian brontzeko domina irabazi zuen.

Luis Martinez. Espainiako Unibertsitate txapelduna da.

Hain zuzen ere, horixe omen da gaurko erakustaldiaren xedeetako bat: «Neguan kiroldegian estilo honetako kirola ikasi eta horretan aritzeko aukera ere eman nahi genuke, eta larunbateko [gaurkoaz] erakustaldiarekin ikusi nahi dugu ia hori egiterik izanen dugun, edo jendeak gustuko duen edo ez, alegia. Hainbat aukera badi-rela erakutsi nahi dugu», zioten bertatik, hara joateko gonbitea egiteaz batera.

Horrela bada, «eguraldiak laguntzen badu behinik behin», zehaztu zuten, igerilekuan izanen da judo erakustaldi hau. «jendea bertan dagoenaz baliatuz»; bestela, es-talpea behar izatekotan, kiroldegian bertan egingen luke.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Web gunea. Garaian garaiko gaien inguruko inkesta eta eztabaidak, gure herrietako berrien berri gertatu ahala jakiteko bidea, irudiak, agenda eta beste zerbitzuak eskuragarri daude. Beste HITZETAKO web-orrietan sartzeko leihoak ere zabal-zabalik ditugu.

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Laramendi kalean 112n2. Bista zoragarriak.

Salgai (Tolosa). Pisua Belate Ibilokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan. 42.000.000 pta

Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilokian

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, B. Zakhibia kalean.

Alokatzeko (Ibarra). Garajea Euskal Herria kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

GIZARTEA ▶

Begirale ikastaroa ere bertan behera gelditu da

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatua, ez da behar adina lagun apuntatu bertan

J. ASTIBIA

Hurrengo astelehenean hasi eta urriaren lehena arte Leitzan egitekoa zen aisialdiko begirale izateko ikastaroa bertan behera gelditu dela jakinarazi dute Leitzaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Drogomenpekotasun bulegotik, ohar baten bidez.

Atzo adierazi zuten, «ikastaroa egiteko behar adina lagun ez dira apuntatu eta, ondorioz, ezinezkoa izan zai-gu ikastaro hau egitea». Ber-

tan landu asmo zituzten atalak askotarikoak izaki, beste hainbeste irakasle ziren etortzekoak, eta ikastaroa bideragarri izan zedin gutxienez parte-hartzaile kopurua 18 lagunekoa beharrezkoa omen zen, «eta 10 lagunek eman zuten izena», zehaztu zuten. «Orain, horiek oso gogotsu zeuden, benetako interesa zuten», nabarmendu dute. Horrela, ikastaroa Iruñeko talde batekin egiteko aukera jarri eta hori baliatu duenik ere izan omen da.

ARESO ▶ GIZARTEA

Antonio Alustizaren Argi, berriz ere argitsu

Nafarroako XXXVIII. Artzain Txakur Txapelketa irabazi berri du Uharte Arakilen

J. ASTIBIA

Argi-k, Antonio Alustizaren agindueri zintzo kasu eginez, Nafarroako Artzain Txakur Txapelketa irabazi zuen, beste behin ere, aurreko igandean Uharte Arakilen egin zen Artzain Eguneko ospakizunetan.

Iaz lortutako Nafarroako Txapelari eutsi zioten, hala: «Justu-justuan, zakurra ardiekin batera atera baitzen eskortetik eta hor puntu batzuk galdu genituen, baina guri egokitu zitzaigun saria», zioen gustura atzokoan Alustizak berak. Zionez, Razkin etxarri-aranatzatarrak Hiru zakurra-ekin lan bikaina egin zuen, «zakurra gaztea izan arren»,



Alustiza, Argi-ekin. J. ASTIBIA

eta «edozein unetan beretzat izanen da txapela», nabarmendu zuen.

Hilaren 18an Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketan parte hartzeko da Alustiza Argi-ekin, Berrizen.

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atea eta eskaierak neurritan

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, I Txarama auzoa • 20491 Leaburu

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 3a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Gazte Eguna, Gazte Asanbladak antolatuta. 10:00etan, gosaria, urteko

balantzea eta aurrera begirako asmoak; 12:00etan, sagardo dastaketa; 14:00etan, gazte bazkaria; 16:00etan, joku parte-hartzaileak; 18:30ean,

fronteniseko finala; 19:30ean, kalejira; 21:00etan, gazte afaria; 23:00etan, kontzertua eta birrirkasak.

Elduain. Hilaren 8an egingo den herri bazkarirako txartelak salgai dira dagoeneko, 20 eurotan. Izen-ematea, udaletxean.

Tolosa. Saharar Festa. Egun osoko agur-festa, Plaza Berrian. 14:00etan herri bazkaria egingo dute. Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatu du, Udalaren laguntzarekin.

LEHIAKETAK

Zizurkil. Umorezko bakarriketa lehiaketa antolatu

du Udalak. Euskaraz idatzitakoak, orijinalak eta 500-700 hitzekoak izan behar dute lanek. Sariak: 500 euro lehenentzat, 300 euro bigarrenentzat eta 150 euro herriko lehenentzat. Hilaren 15 arte eraman daitezke, Aurrerako udal bulegoetara.

JAIAK

Elduain. Andra Mari jaiak. 18:00etan, jaien hasiera suzirikin eta kanpaekin; 18:30ean, Poxpolo eta Mokolo pailazoak; ondoren, txokolatada Urdelar Biltokian; 24:00etan, Abiba Diskoiaia, Donosti Djren eskutik.

Lizartza. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak. 10:00etan, goiz deia Lizardi txistulari taldearekin; 17:00etan, ume jolasak; 19:00etan, sagardo dastaketa; 24:00etan, manifestazioa; 24:30ean, BKBO eta Raiz-X taldeak; ondoren, Maitana eta Aiora trikitilariak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Iturrioz. E. Herria, 3. 943 67 09 15.
 Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Yulen Lopez Etxenagusia.
 Gaur 2 urte. Aitona, osaba eta etebe guztien partetik, zorionak.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoizetara: Araba etorbidea, 5 beheka - TOLOSA Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



ZORIONAK, HAIMAR

Orendaingo eta Ikaztegietaiko laguneren partez! Jo ta ke askatasuna lortu arte!